

45 ■ Euskal presoek hitzak, kantu eginak



Errepresaliatuen hitzekin osatutako kantak batzen dituen disko kolektiboa kaleratu du MusikHerriak-ek.



46 ■ Artistak, enpresen berritzaile

Hamar enpresatan lan egingo dute aurten Disonancias proiektuan parte hartuko duten artistek.

Sebastian Zubiletaren etxeratzea

‘Baleen berbaroa’ obrarekin hasitako trilogiari amaiera eman dio Edorta Jimenezek ‘Azeria eta lehoia’ lanarekin

IRUNE BERRO
Bilbo

Ingalaterran da Sebastian Zubileta. Eta ihes egin beharko du. Baina zaila izango du; norden ere ez daki oroimena galdu du. Edorta Jimenez (Mundaka, Bizkaia, 1953) pertsonaia historikoak azken abentura biziko du. *Baleen berbaroa* nobelarekin (Txalaparta, 1999) hasi eta *Sukar ustelaren urtea* (Txalaparta, 2004) obramardularen segida eman zion trilogiari akabera eman baitio idazleak, plaza jarri berri duen *Azeria eta lehoia* abenturazko lan historikoarekin (Txalaparta).

Gorritoarekin borrokatu ondoren, Sebastian Zubiletaren arrastoa ez da itsas zabalean galdu. Onik ater da. Eta etxera itzuliko da, baina aurretik Ingalaterran izango da Armada Garaiezinekin.

«Estiloaren aldetik, *Azeria eta lehoia* aurrekoak baino nobela arinagoa da», Jimenezen hitzetan. «*Baleen berbaroa* nerabazarokoaren, *Sukar ustelaren urtea* infernura jaisteaz gero, eta *Azeria eta lehoia* rekin zikloa itxi dut, Sebastian Zubileta etxean dago berriro ere».

Jimenezek *Piztien itsasoa* izenburua jarri dio hiru nobelekin osatu duen trilogiari, «Sebastian Zubileta piztien itsasoan egon baita urte luzeetan».

«Itsaso handian ezagutu ditut fedeguztiak, sinesmenak, mundu ikuskerak... Ezagutu ditut gerrak, errege-erreginen berriak, ezagutu ditut lagun batzuk, etsaiak, eta etsai egin zaizkionak joka bat diferente eramateagatik... Eta itzuli denean, beste bat da».

Halaber, Jimenezek *Piztien itsasoa* izenburua jarri dio bildumari XVI. mendeko galeoiak, haien artean liburuan azaltzen den *San Salvador* galeoia, «ordura arte gizakiak eraikitako tramankulurik konplexuenak zirelako. Konparatu izan dira espaziontziek, eta haien teknologia mailarekin», azaldu du idazleak.

Alabaina, Jimenezek uste du galeoiak ez zirela XVI. mendeko piztia bakarrik. «Jendea gerrara eramaten zuten printzeak eta botere-suak piztiak ziren ere bai». Horiez gain, trilogiako azken nobela «beste piztia batzuk» azaltzen dira: «Inkiszioa, adibidez».

MACHIAVELLI, LEIZARRAGA... Nobelaren izena, bestalde, Niccolò Machiavelliren *Printzea* obratik ater da. «Machiavellik liburu hartan dio bere konderrria mantendu nahi duenak jakin behar duela izaten azeria eta lehoia; azeriak lakioak erraz antzematen ditu eta lehoiak badu aski indarrak lakioak hausteko». Sebastian Zubiletak halaxe jokatu behar duela dio idazleak, «Portlandetik etxera itzultzeko».

Azeria eta lehoia nobelan, Sebastian Zubiletak «bilaketa existentziala» egin beharko duela azaldu du Jimenezek. «Prozesu horretan, Leizarragak eragin handia izango du haren, Bibliaren itzulpenak, hain zuzen».

Era horretan, euskarazko testu klasikoek gorazarre egin die Jimenezek nobela berrian. «Anakronia bat egin dut, eta Oiarzabal kapitalaren liburua ere aipatu dut, itsasoko nabigazioari buruzkoa».

Liburuarekin, orobat, Euskal Herriko historiari eta hizkuntzari ekarpena egin nahi dio Jimenezek. «Itsasoko piztia horiek, ontzi horiek, euskal tradizioan, gure merkataritzan izan duten garrantzia inoiz ez da behar bezala kontuan hartu, salbuespenak salbuespen; Julio Caro Barojak eta beste batzuek landu baitute hori».

Haatik, Jimenezek dio Euskal Herriko historiaren bestelako ikuspegia duela. «Itsasoak eta kostaldeak, itsasertzak eta merkataritzak Euskal Herriko ekonomia-»

«Estiloaren aldetik, *'Azeria eta lehoia'* trilogiako beste bi nobelak baino arinagoa da»

«Haragiaren indarra dago nobelan; Sebastianen patua bizizaleatasunaren indarrari esker erabakiko da»

EDORTA JIMENEZ
IDAZLEA



Edorta Jimenez idazlea, atzo, Bilbon. MONIKA DEL VALLE / ARCAZKI PRESS

ren ardatz lana egin dute mendeetan». Eta hori adierazi du idazleak bere obran.

Horretarako, itsasoko hizkera baliatu du, «galdu duguna edo jaso ez duguna». Horregatik, baina, irakurleek ez dutela ikaratu behar adierazi du. «Lexikoak ez dio trabarik egiten argumentuari, ekintzak balio du liburuan».

Irati alaba ume-umeazenean hasi zen idazten Jimenez *Baleen berbaroa* liburu, «gure kostako baleen istorioa ipuin modura kontatzeko hari». Egitasmo hura denbora batez utzi zuen, ordea. Eta 1994an ekin zion nobela idazteari. Sebastian Zubileta berpiztu zuen. Eta harrezkero, harekin bizi izan da 13 urtez. «Denbora horretan gorabehera handiak izan dira, baina hori egon da pertsonaia», esan du idazleak.

BIDAIAK ETA IKERKETAK. 1994tik hona ez du atsedetik hartu Jimenezek. Itsasoari buruz makina bat irakurtzearekin batera, Portlander (Ingalaterra), Lisboara (Portugal) eta Coruñara (Galizia) bidaiatu du. Eta, besteren artean, Felicisima

Lan horretan zebilela, Txit Zorioneko armadari lotutako «berri ikaragarria» aurkitu zuen idazleak. «*San Salvador* ontziak sua hartu zuela jakin nuen. Emakumezko batek tratatu txarrak jaso zituen itsasontzian ofizial gazte baten aldetik, eta emakume horren senarrak, haserretuta, sua eman zion omen zion bolborari».

Gertakari horren atzean, nobela ederra zegoela pentsatu zuen Jimenezek. Dokumentuak arakatzaren jarraitu zuen, horrenbestez, eta orduan jakin zuen Erresuma Batuko Weymouth hiririk gertu, Portland lurmuturrean, hamaika lagun egon zirela preso. Presoen artean emakume bat zegoela irakurri zuen ondoren. Beraz, bazuen informazioa nobelara emakumezko pertsonaia historikoak biltzeko. Hala, emakume horiek eta «beste pertsonaia bitxi batzuek» osatzen dute idazlearen nobela berria. «Zaldi bat eta mutiko atzeratu bat» dira horietako batzuk.

Jimenezen iritziz, «adimen urriko pertsonak guztiz sentiberak dira, egoskorak, eta laguntzen zaizenean, euren intelektua gara dezakete, nahiz eta urri etorri etorritik, sortze». Ideia hori islatzen duten ekintzak eta elkarriketak jaso ditu Jimenezek *Azeria eta lehoia* nobelan. Eta ez hori bakarrik; liburuak erotismo puntu bat ere baduela adierazi du idazleak: «Haragiaren indarra dago nobelan, azken batean Sebastianen patua erabakiko da bizizaleatasunaren indarrari esker».

Erotismoaz gain, maitasuna ere badago liburuan, eta adiskidetasuna, eta abentura... Eta historia ere bai, noski. «*Azeria eta lehoia* abenturazko nobela historikoa baita». Benetako gertaeretan oinarrituta dago.

Gabriel Aresti euskaltegiko kultura hitzorduek!!

Lurra eta Ura

INAKI ANTIGUEDAD

Hitzaldia Bilboko Kafe Antzokian

Gaur 11:00etan doako sarrera

25 urte Gabriel Aresti euskaltegia

Donostia 01015 - 4. solairua 9007 - 9008 - Tel. 943 999 914

www.gabrielaresti.com